EL TEMPS fuig a la música de Johann Sebastian Bach  
Arriba el cansament futur brodat en nostàlgia.  
No n'hi ha prou amb el llibres els poemes les geografies barrejades  
Les llengües compartides les paraules gronxades.

Cal donar la benvinguda al passat que entra sense trucar  
Embolicat en paper bonic com un regal  
La por  
D'haver-nos partit la vida perquè haguem partit la vida  
Nosaltres en dues

Els mapes  
Dibuixen isoglosses al cos ablanit

Tarda del temps que s'enfonsa a l'estómac  
Que s'enganxa al pit dolor real i viscut  
Com la música de Johann Sebastian Bach  
A la Thomaskirche a Leipzig  
Que convida sempre al violí  
De Luísa Villalta Lluminosa  
Que m'espanta la por  
Entre sanglots

És per això que a la ciutat  
En què va cantar parir escriure estimar i es va morir pobra  
Anna Magdalena Wilcken que fou Bach  
Només se sent la sarabanda  
I a tu companya amiga Luísa.  
Només a tu.

PALMAKO ADIERAZPENA

Palman bildurik 2024ko maiatzaren 29an,  
guk, galizieraz, euskaraz eta katalanez idazten dugun idazleok,

#### ADIERAZTEN DUGU:

1. Hemen elkartu garela GALEUSCA kultur trukerako gunearen oinordeko gisa, gogoan izanik historian aspaldiko aurrekariak dituela, jada Espainiako Bigarren Errepublikaren garaitik, eta bere sorreraz geroztikako ibilbidean mugarri dituela urtez urte egindako idazle topaketak, Pobleteko 1984ko Topaketatik aurrera, bai eta GALEUSCA Federazioaren eraketa ofiziala ere, 2008an. Gure aurrekoek utzitako ondare historiko, kultural eta linguistikoaren lekuko bizia gara, eta erantzukizuna ez ezik borondatea ere badugu ondare hori orainaldian eta etorkizun hurbilean proiektatzeko, garaian garaiko beharretara egokituz.
2. Gaur berriz ere ekingo diogula gure Federazioaren jarduera publikoari, 2.800 idazle inguru ordezkaturaz, lanean eta barne-lankidetzan zenbait urtez jardun ondoren, Bartzelonan egin zen azken Topaketatik hamar urtera eta Pobleteko Topaketatik berrogei urtera.
3. Eusten diogula Galiziako, Euskal Herriko eta Països Catalaneko literaturen arteko ekintza bateraturako konpromisoari, hainbat arlotan, hala nola idazketaren eta itzulpenaren esparruko eskubide profesionalen aldeko borrokan, gure hizkuntzen arteko kultura- eta literatura-trukean, haietan idatzitako literaturaren zabalkundean, adierazpen-askatasunean eta gure Federazioaren jardunari hurrengo urteetan berriz ere ekiteko eginkizunean.
4. Amaitzeko, eta hemen azaldutako arrazoiengatik, nazioko, estatuko eta nazioarteko erakundeei exijitzen diegu galizieraren, euskararen eta katalanaren aurkako eraso

guztiak bertan behera uzteko, baita eremu urrikoak edo gutxituak diren estatuko beste hizkuntzen aurkako eraso oro ere. Era berean, eskatzen dugu haien normalizazioaren eta sustapenaren garapen osoa, gure hizkuntzetan egindako literatur sorkuntza eta itzulpena hauspotzeko politika eta programen bitartez, eta gure literatura nazionalen aitortza eraginkorra, hala beteko bailirateke Hizkuntza Gutxituen Europako Gutuna (1992), Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1996) eta Eskubide Kulturei buruzko Friburgoko Adierazpena (2007). Halaber, hiru literatura-sistemetako (katalanezkoa, euskarazkoa eta galizierazkoa) kultura-erakundeei galdatzen diegu eskuz esku lan egin dezatela gure hiru kulturen arteko harremanak normalizatzeko, baita estatuko nahiz nazioarteko esparruetan ere. Itzulpengintza eta literatura nazioartekotzea izanik hemen elkartu gaituen topaketaren ardatz nagusia, berriz ere agerian uzten dugu munduko elkarrizketa kulturalaren partaide izan nahi dugula, normaltasun osoz eta inolako konplexurik gabe, bakoitzaren errealitate linguistiko, kultural eta nazionaletatik abiatuta.

Palma, 2024ko maiatzaren 29a

## ITZULPENGINTZA: LITERATURA MINORIZATUEN INTERNALIZAZIORAKO BIDEA

*Garazi Arrula Ruiz*

*María Reimóndez*

*Lluïsa Soaz*

## *Garazi Arrula Ruiz*

«Irakurketa oro partitura bat da, bai itzultzailearentzat, bai irakurlearentzat». Joseba Sarrionandiak hitz horiekin gonbidatzen zituen bere poemen itzultzaileak interpretazioari eta jolasari atea zabal ziezazkioten, EIZIE eta Etxepare elkarteek antolaturiko Itzultzaile Berriak Programan. 2016ko uda zen eta Europako ekialdeko zazpi itzultzaile elkartu genituen Donostian, hilabete batzuek Lazkaoko barnetegian euskara ikasten aritu ostean Sarrionandiaren eta Arantxa Urretabizkaiaren testu batzuk beren hizkuntzetara itzultzeko tailer batean. Ekimenaren helburua zen bai itzultzaileak euskararekin trebatzea, bai euskal literatura nork bere hizkuntzara itzultzea. Kronista lanetan ibili nintzen orduko hartan, eta itzultzaile haien neke eta poxen lekuko zuzena izatearen pagotxa izan nuen horrela. Idazle gisara parte hartu nuen antzeko programa batean urte batzuk geroago, pandemia betean, non bi quebectar itzultzailek frantsesera itzuli baitzituzten nire pare bat ipuin, eta berriz iruditu zitzaidan irla batean geundela idazle-itzultzaile lantegi ezohiko hartan, are eta irlago muga sozial zurrinak tarteko. Batean zein bestean, hizkuntzari eta kultur erreferentziei buruzko galderak ur azaleratzen ziren, salbamendu-jaken antzera, estilo eta tonuari buruzkoekin nahas-mahas. Urtebete geroago, Txalaparta argitaletxeko editore nintzela, editore independenteen nazioarteko topaketa batzuk antolatzea egokitu zitzaigun, Iruñean, eta marko horretan, Madagaskar eta Peruko editore banarekin hizkuntza gutxituetan editatzeari



buruzko mahai-inguru batean parte hartu nuen. Erronkak bestelakoak ziren haienean, baina doinua ezaguna zitzaidan halere. Zortzi urterekin, kanpinean ezagututako lagun espainolari gutun zenbait bidali nion uda amaitu eta bereizketa behartuaren ondoko hilabeteetan, eta euskal kanta bana ekinez bezala ezinez erdaratzen nion haietako bakoitzean.

Baliteke nire ibilbidearen kontaketa interesatu bat izatea hori, baina guztiek dute hizkuntza gutxitu bateko literatura nazioartekotzearekin eta horren gaineko gogoetarekin zerikusia, eta nondik ariko natzaizuen adierazteko balio dutelakoan nago.

Itzulpengintza ikasketek irauin zuten denboran, hamaika aldiz aditu nuen bi hizkuntza handiren arteko itzulpenak ez duela hizkuntza gutxitu batetik edo batera itzultzeak bezalako inplikazio politikorik. Adibideak ematen zizkiguten, eta oso zentzuzkoa zirudien arren, esanen nuke ez nuela egiaz ulertu itzultzen hasi nintzen arte, eta, are eta garbiago, tesiarekin sartu arte: itzulpen hautuez, erreferentzia mugatuez eta merkatu zurrunaz harago, bazen beste zerbait: nire hizkuntzan egindakoek ez zuten piperrik puntuatzen, eta aldiro ikerlana erdaraz eman behar. Autoitzulpenaren teoria eta praktika nuen aztergai, batek pentsa lezake hari-harira zetorkidala.

Garai hartan bildu nituen Dasilva, Grutman, Manterolaren esanak, eta haiengandik jakin nuen oso urria dela hizkuntza gutxituen arteko itzulpena, ezpada hizkuntza nagusi baten zubi-lanaz. Hizkuntzen galaxian dauden botere harreman asimetrikoen ondorioz, bada, indar zentripetu batek ubidetzat jokatuko luke hizkuntzen arteko isurian. Doktoretza egiten lehenik eta editore lanean gero, argi ikusi dut hizkuntza hegemoniko banarekin kontaktuan bizi den literatura diglosikoa dela gurea eta sistema nagusiarekiko mendekotasun egoeran dagoela; horrek, noski, zenbait estutasun eta morrontza dakarkie euskarari eta literaturari. Esate batera,

hainbat arrazoi tarteko, autoreei eskatzen zaie beren lanen itzulpenean parte hartzeko, xede hizkuntzako sisteman ere autore bihurtzeko (nekez autoitzultzen dira idazle euskaldunen gaztelaniazko obrak euskarara; horra egoera diglosikoaren beste sintometako bat). Horrela, ez da harritzekoa euskaratik gaztelaniara itzultzen denaren ia erdia autorearen itzulpena izatea. Gero, gaztelaniazko itzulpen hori bihurtzen da gehienetan hirugarren hizkuntzetarako itzulgai, iturria esplizitu eginda zein ez. Azken boladan, euskaraz argitaratu eta hurrengo urtebeteko epean egiten diren itzulpenak ugaritu dira, bai eta ia aldebereko argitalpenak ere erdaretan.

Ez dut uste gaurko egunean inork zalantzan jarriko lukeenik euskal literaturaren garapenean itzulpenak izan duen paper garrantzitsua, besteak beste, euskara estandarra ezartzeko gakoa izan denez. Egonkortze bidean diren literaturek beharrezkoa dute itzulpen bidezko inportazioa, kanpoko joerak bereganatzeko ez ezik corpora osatzeko eta hizkuntza literario bat indartzeko. Itzulpena gakoa baita Europako nazioen bilakaera historikoan, eta trantsizio egoeran dagoen literatura orok aukera handitzat du. Aldiz, kultura bat eroso eta errotuta dagoenean menderatzaile dei genezakeen egoera batean, itzulpenak ez du ia harengan eraginik. Datu kuantitatiboek harago (2015-2019 epealdian, euskaraz argitaraturiko haur eta gazteentzako liburu guztien %65-70 ziren itzulpenak, eta %30 helduen literaturaren kasuan), gure literatura sisteman hutsunerik handiena genero batzuen absentzia edo generoen arteko desoreka dela esan daiteke.

Hasieran aipaturiko lantegian, Arantxa Urretabizkaiak esan zuen euskal literaturan azken hamarkadetan izan den iraultzarik handiena, irakurle taldeekin batera, beste hizkuntzetara itzultzea izan dela. Sarean kontsultagai dagoen ELI katalogoaren arabera, 800 titulu inguru daude euskaratik itzuliak, 1.300 xede-testu guztira, eta euskal liburu itzuli

horien erdia baino gehiago Euskal Herrian argitaratu da. 1980ko hamarkadan, esportazioen erdia baino gehiago haur eta gazte literaturari zegokion, baina ordutik jaisten joan da, eta azken boladan lautik bat inguru da. Euskaratik itzultzen den guztiaren ia erdia gaztelaniara izaten da (ondotik, katalana dago; hirutik bitan, Estatuko hizkuntzaren batera). Horrek guztiak erakusten du urrun garela oraindik literatura sistema sendo eta osoa izatetik.

Joseba Sarrionandiak frantses irakurria eskolan ikasi zuen, galegoa Carabanchelen preso batzuekin, portugesa Puerto de Santamarían irratia entzunez, eta ingelesa, berriz, unibertsitatean. Besteari entzunda, bestearekin harremanetan, bestea ulertu nahian. Ordutik, sorburu-hizkuntza gisara erabili ditu batzuk euskarara itzultzean eta euskaraz idazterakoan, nahiz eta batez ere gaztelania izan duen zubi; guztira, berrogeita hamar sorburu-hizkuntzatik gora, eta beraz gutxituak asko, beste hizkuntza gutxitu batean eman dituenak, jolasti, bere partitura interpretatzeko. Handiak imitatu nahiaren ezinetik urrun, txikiak izateari atera behar diogu probetxua, besteari entzunda, bestearekin harremanetan, bestea ulertu nahian. Eta horretarako hau bezalako foroak, aukerak, bideak sortuz.

Testu hau osatu bitarte, nik ere galdetu diot neure buruari nola entzunen den nire ahotsa galegoz, katalanez, doinu bera izanen ote du, antzeko oihartzunak sortuko al ditu. Baietz pentsatu nahi dut, horren urrun ez gaudela esan nahiko baitu. Eta, bestela, kontatu.

## *María Reimóndez*

*Txerra Rodríguez galegotik itzulia*

### **Bidaiak?**

Itzulpengintzaz hitz egiteko Mendebaldean gehien erabiltzen den metaforetako bat da bidaiarena. Baina metaforak ez dira kaltegabeak, Maria Tymoczko bezalako itzulpengintza dekolonialaren ikertzaileak edo Lori Chamberlain bezalako feministek gogorarazten diguten bezala. Itsasoak ibili dituzten herriek, ez Besteekin kontaktua izateko, menderakuntza eta ustiapen helburuekin (esplotazio hori izan zen eta da, batez ere, epistemikoa), herri horiek dira hitz egiten dutenak, zeri eta zeharkaldiari buruz, harritzekoa ez dena bide batez. Horregatik, aztertu behar dugu zer zumerekin (edo taulekin) sortzen dugun gure diskurtsoa itzulpengintzari buruz galiziera bezalako kultur ez hegemonikoetatik. Horri buruzkoa da aurkezpen hau.

### **Itzulpengintza helmuga gisa**

Bidaia gisa aipatzen den itzulpengintzaren ideia erakargarri horrek ez du misterio handirik. Antza denez, abiapuntu bat dago eta helmuga bat. Hala ere, jakin badakigu nabigatu daitekeela bi kontzeptu horiek garrantzirik izan gabe, horrela erakusten digu, esate baterako, baxurako arrantzak... eta, zer esanik ez, arrain-sardek. Izan ere, agian garrantzitsuagoa da galdetzea zertarako abiatzen dugun bide bat.

Horrela, ahaleginduko naiz gogoetatzen noraino eta zer argudiorekin sustatzen den itzulpengintza gure hizkuntza komunitateetan. Argudio guztiak benetan positiboak al dira?

Gure literaturen gainean eta besteekiko duten posizioen gaineko zer irudi daude? Pausatuko dut galdera adierazgarri bezain probokatzaile bat: urtean gehienez bostehun ale saltzen dituen Estatu Batuetako poesia idazle batek itzulpengintza lehentasunezkoa dela pentsatzen al du? Uste dut erantzunak azpitik dabilen diskurtso bat agerian utzi dezakeela. Diskurtso hori, gainera, ez zaigu bakarrik aplikatzen hizkuntza hegemonikoetan idazten ez dugunoi.

### Nazioartekotzea zerumuga gisa

Itzulpengintza helmuga bezala zalantzan jartzeaz gain, «nazioartekotzearen» zerumuga ere gustatuko litzaidake arakatzea. Zerumuga horrek, antza, gidatu behar gaitu, baina urrundu baino ez gaitu egiten. Dugun arazorik garrantzitsuenetako bat da erakundeek eta kultur eragileentzat nazioartekotzea dela itzulpenak egitea hizkuntza hegemonikoetara, batez ere gaztelania eta ingelesera. Aurkezpen honetan argudiatuko dut hizkuntza horiek bereziki, eta geure zerumuga bakarra hori dela uste duten logikak, beste komunitate batzuetara heltzeko oztopo direla.

### Zeharkatu edo itsasoan egon?

Gai hauek guztiak kontuan izanda, hizkuntza ez hegemonikoetarako ikuspegi alternatiboa garatuko dut, harreman autonomo eta ikuspuntu ekosistemikoa sustatzeko asmoz. Hizkuntza anitzen itsaso batean egoteak ez duelako esan nahi nahitaez zeharkatu behar dela. Aniztasunean eta komunitate ezberdinen arteko elkarbizitza horizontalean baino existitzen ez den bizitza bultzatzeko sinergiak bilatu behar ditugu.

## Lluïsa Soaz

### *Itxaro Borda katalanetik itzulia*

#### 1. Itzultzea

Mireille Gansel itzultzaileak dio *Transhumantzia egin bezala itzuli* bere liburuan, itzultzea transhumantzia egitearen parekoa dela. Bere itzultzaile lana, konpromiso politiko eta sozial sakon batetik sortzen da, kulturen arteko enpatia batetik. Transhumantzia artzainen bidaia bat da beraien ardiekin, neguko lurralde batetik udako lurralde batera kabalekin egiten den bide luzea. Horrela ekoizten da elkarrekin deus ikustekorik ez duten espazioen arteko komunikazioa eta bestekotasunaren ezagupena. Abegikortasuna sustatzen dute komunikazioak eta trukaketak.

Paul Ricoeur (1913-2005) filosofo eta antropologo frantsesak, itzultzailearen lana azpimarratzeko, abegikortasun linguistikoa aipatzen du. Arnau Pons poeta eta itzultzaileak, itzultzea ekintza abegitsu bat dela baiesten du. Egia da mundua sentitzeko eta ikusteko forma bat ordezkatzeko duen testu bat, bere mundu propioa ere duen beste kultura batera pasatzea elkar ezagutze, elkar hartze ariketa bat dela eta bestearekiko maitasun keinu bat ororen buru.

Itzulpenak hizkuntza bat eta kultura bat ahanzmenetik salbatzen ditu, zerbait ezberdinekiko harremanetan jarritz. Obra literarioek, landare ongi sustraituen antzera, bizi gehiago ukanen dute beste herrialde batean, berdeak diren izkintan birlandatzen baldin badira. Itzulpenaren misioa interpretazio baten ematea da, ez arazorik gabea, jatorriko espaziotik urruti dagoen espazio ezberdin batean.

Janusz Korczak (Varsovia 1878 - Treblinka 1942), poloniar pediatria, idazle eta pedagogoak izkiriartzen zuen «ama-hizkuntza ez da haurren men uzten den norma eta gramatika erregela bilduma bat: arimaren elikadura espirituala da».

Baieztapen honekin erabat ados nago. Alta, elikadura espirituala baldin bada, kontserbatu, zaindu eta gaizki tratatua izan dadin ekidin behar da.

Batzuetan, baina, egoera diglosiko batean, hizkuntza bat baino gehiago elkarrekin bizi diren gureak bezalako herrialdeetan, (hiruronak) ama-hizkuntza ez dago bakarrik, beste batekiko menpekotasun batean bizi da eta gaizki tratatua da, botere hizkuntzek gutxiago direla kontsideratzen diren mintzairak irensten dituztelako errealitatea aieru paternalista eta onbera batez ezkutatuz, eta horrek balio du soilik ezberdintasunak mantentzen.

## 2. Esperientzia pertsonala

Adibide gisa, nire jatorriaz hitz egin dezaket. Nire gurasoak, galego-portuges enbor ederreko galegoa hizkuntza propiotzat zeukan baserritar kultura batetik datoz. Gaztelera zen estatuko hizkuntzaren kolonizazioagatik jasan behar izan zuten mendekotasun konplexuak egiten zuen derrigorrezkoa iruditzen zitzaizela, ez zirelako beraiek beti gaztelera mintzatzen. Orogen gainetik, ez zuten nahi beren tribuaren mintzaira zein zen nabarmen gera zedin. Fede onez beraz, niri gaztelera hitz egiten zidaten «herritar» kutsurik ukan ez nezan. Baina arimaren hizkuntza ezin da ezabatu erran soil batez eta ondorioz haien gaztelera galiziar egitura linguistikoz betea zegoen. Galiziara joaten ginenean, demagun, askotan, ez nintzen mintzatzen ahal nire amona Amadorarekin, hark ez zuelako gaztelera hitz egiten eta nik ez niolako ezer ulertzen. San Gervasiko beheko zatian bizi ginen Bartzelonan, merkatuaren inguruan, langile txiki auzune batean, zurginak,

litsatzaileak, latorrigileak, jatetxeak etab... etxean katalanez egitea normala zen (bakarrik etxean eta kalean, noski). Auzoak izanen ziren, halatan, nire lehen maisuak katalana ikasteko. Haur kanta katalanak irakatsiko zizkidaten, sol. solet, ral, ralet etab... Ama, Bartzelonan bizitzeaz biziki kontent baitzen, berehala saiatu zen katalanez hitz egiten. Eta haren hizkuntza, lehenik galegoaren, gero gaztelaren eta katalanaren hibrido bat bilakatu zen. Galegoa niretzat, gurasoek intimitatean eta L'Hospitaleten bizi ziren adiskideak bisitaz etortzen zitzaizkigunean baino erabiltzen ez zuten hizkuntza bat zen. Haur batentzat, zelako nahasmendu idiomatikoa! Nerabegarora heltzean, politika eta kolonizazio zergatiek bahitutako familia-hizkuntzaren arazoak kontzientzia hartu nuen. Ausartu eta seriozki ikasteari ekin nion orduan. Ez zen hain zaila izan, jadanik ezagupen pasiboa neukalako, eta bereziki, nire jatorriarekiko maitasun aitor ezin bat sentitzen nuelako nigan. Udarari, mendiko alger hartara joatean ginenean, amak familiarekin erabiltzen zuen eta inkontzienteki debekatua zen mintzaira sekretu horren musikak zorutzen ninduen. Belarrian grabatua daukat haren melodia. Geroago erabaki nuen gauza ona zitekeela itzultzeari ekitea, ene bi munduak akordatzeko eta harmonizatzeke. Eta hori egin nuen. Itzulpenarekin nire aitak galegoz erraten zizkidan hitz gozoak berreskuratzen nituen, bai eta amarenak, ez hain gozoak erasiatzen ninduenean. Mundu bat beste mundu batera pasatzean, amonarekin galdu harremana eta haren iragana berreskuratzen nuen. Zuhaitzen errateko era berreskuratzen nuen, landare sendagarriena, bera ezagutzaile fina zen, gauza bakoitzaren izena, abereena, bideen izenak, euriarena, lainoarena. Jatorriak. Itzulpena, beraz, ibaia zeharkatzeko eta beste ezpondaren ikusmena berreskuratzeke zubi baten antzera. Transhumantzia, abegikortasuna eta maitasuna.

Itzultzaile gisako nire ibilbidea ez da biziki luzea. Ez dut itzulpen ikasketarik egin. Orkideak bailiran, soilik hitzen edertasuna eta misterioa maite dituen filologo bat naiz eta itzultzen dut arrazoi literario eta intimoengatik. Manuel Rivasen eta Carlos Casaresen katalanezko itzulpenak plazaratu ditut. 2003 eta 2013 artean, Galeusca topaketetarako itzuli ditut prosazko testuak eta poesiak katalanetik galegora. Eta ordenagailuan, Rosa Aneirosen eta Lorena Conderen itzulpen ez publikatuak baditut. Ezagunak ez diren autoreen publikatzeak edo ez publikatzeak sinplifikazioarekin eta neurri batean onartzen dugun zentralismo inposatura gero eta asimilatuagoa den gure kultura gutxitu egoeraren eratorri kolonizatzailearekin zer ikusia du. Balioa ematen zaie Hirian eta Estatuko Gortean baieztatuak diren autoreei. Besteak ez dira existitzen. Galizia beti ispilatu da Katalunian. Hemen alderantziz da. Urrutiko edozein herri exotikok herrialde atlantiko batek baino aitorten gehiago edukiko du.

### 3. Galeusca. Historia pixka bat

Uste gabetarik bezala iratzarri ziren kataluniar Errenazimentuko eta galiziar Jazarpenaren garaitik bi herrialdeen arteko halako identifikazio bat sortu zen, kultura periferikoak suntsitzen zebilen zentralismoaren kontra. 1918an batasun bat moldatuko zuen katalanen eta galegoen arteko elkertasunak, 1933an indartu zena Euskadi hurbiltzearekin, Galeusca bilakatuko zen, elkertasun betean, interes politiko eta kultura propioen defentsa egiteko. 1933ko uztailaren 25ean, Galiziar Aberriaren Egun Nazionalaren kariatara, Santiagon jaio zen hiru herrialdeek osatutako antolakuntza hau. Castelao, Kataluniaren miresle handia, izanen zen arima inspiratzailea eta Galeusca deitzen zen hiru herrien elkarte horretan estatutu ezberdinen proiektuen defentsako planteamenduak biltzea lortuko zuen.

Galeusca politikoaren bigarren aldia desterrutik sortzen da, 1945ean Buenos Airesen. Castelaok, galegoak, euskaldunak eta katalanak juntatu zituen Galeusca deitzen zen aldizkari baten inguruan. Eta hirugarrena, hirurogeita hamarreko hamarkadan. Ondotik beste saio batzuk ere izan ziren.

### Politikatik literaturara. Idazle galiziar, euskaldun eta katalanen topaketak. Pobleteko manifestua

1984 eta 2014 urteen artean ospatu ziren idazle galiziar, euskaldun eta katalanen Topaketak. Lehen edizioan, 1984ko ekainaren 24an, plazaratu zen Pobleteko manifestua. Bere helburuak ziren: hiru hizkuntzetako idazleen defentsa eta promozioa, komunikazio harremanak, eskubide profesionalen defentsa, ekimen bateratua estatuko eta Europako administrazio publikoen aurrean, hizkuntza bakoitzeko obra literarioen sustapena eta normalizazioa.

2008an sortu zen, Pobleten, Galeuscako (AELC, AELG, EIE) idazle elkarten federazioa, hiru herrialdeetako idazleen urteroko topaketen 25. urteburua oroitzuz eta 2008tik 2014ra antolatuko ziren topaketa horiek.

### 4. Botere harremanak. Kolonizazioa

Denbora pasatu ez balitz bezala Galeuscaren kontzeptu politikoa eta idazleen arteko topaketak kontuan hartuz, ikusten dugu ez garela asko aurreratu. Oraindik abiatzear gaude, arlo batzuetan bederen. Estatu zentralizatzaile bat daukagu aurrean, gure indar sortzailea xurgatzen eta laguntasun zein biguntasun itxura batean azpian urtzen duena, gure premien antipodetan. Ereduaren arabera, kultura dominantea kultura dominatuari interesatzen zaio beretzat lanjerrik ez dagonenean bakarrik, hots neutralizatua denean. Orduan, bere nagusitasun posizio batetik jarrera paternalista baten erakustaldia egin dezake.

1984ko Pobleteko manifestuak Ramon Barnils (1940-2001) kazetariaren erantzun bat eragin zuen El Temps aldizkarian, gaurko begiradatik aski profetikoak diren gauza batzuk zehazten zituela.

«Arazo bakarra da, idazle pertsegituak, erasoak, eskualdetuak (ikusezinduak erantsiko nuke nik gaur) diren idazle euskaldun, katalan eta galziarrak ez direla inoiz zepotik aterako, etsaiak seinatu joko eremuan jokatzeko onartzen duten bitartean, kartzelako patioan ibiltzea eskatuko duten bitartean, edota hori da gehienetan ikusten duguna, exijitzen duten bakarra gabezia autokudeatzea den bitartean»

Barnilsek bilkura horiek hizkuntza pertsegituaren xede gerrillariarekin egin behar zirela defendatzen zuen edo ez zutela ezertarako balio. Joko arauak nahitara onartzea borroko ezagunaren borondatezko biktima bihurtzea zen.

Gehitzen zuen: «Nietzschekek zioen dragoiaren kontra urteak borrokatzen pasatzen zituena dragoi bilakatzen bukatzen zuela».

84ko Ramon Barnilsen artikulua honek, nire irudiz, arazoaren korapiloa zentratzen du. Hainbeste urtez ez gara aurreratatu. Galeusca asmatu genuen puntu berean gaude. Egoera linguistiko kolonial batean bizi gara eta normaltasunez egokitzen gatzazkio. Asimilatzen uzten gara eta publikazioak plazaratzen segitzen dugulako iruditzen zaigu guzia salbatua daukagula, funtsean hala ez delarik.

Adibideak:

1. Galegozko eta euskarazko obrak katalanera itzultzen dira, Estatuaren nagusitasunaren ezagupenaren baheetatik pasatu eta berehala. Beste obrak ezezagunak gelditzen eta geldituko dira... «Sari nazionalak kalitatea sortzen dute». Boterearen kultura «eskuzabala eta kondeszendentea» da eta karamelu zitalak eskaintzen dizkigu noiz behinka. Argi dago zein den argitaletxe talde handien interesa. Eta

argitaletxe txikiak orduan? Berdintsu, salbuespen batzuekin, noski. Zer gertatuko litzateke bilateraltasuna trinkoagoa egiten bagenu eta hizkuntza zein kultura dominantearen filtrok pasatzen ez bagina? Bi hizkuntza menperatuaren artean zuzeneko itzulpen baten egitea, hizkuntza horiek duintasunez janzteko eta menpekotasunari oldartzeko modu bat da.

2. Katalanez eta gazteleraz publikatzea onartzen duten autoreak zer? Zein da horrela hobesten den hizkuntza? Berdinak dira? Diglosia egoera permanente batean dihardugu. Ez gara berdintasun baldintzetan. Berdintasun faltsu horren fenomeno egunetik egunera argiago eta perilosa da (giro orotan...)
3. Konferentzia batean, baten batek katalana ez duela ulertzen erraten baldin badu, hizkuntzaz aldatzen dugu agudo, biziki ongi ikasiak garelako. EZ, gauzak ez dira horrela.

Gazteleraz ari den edozein, indar minimoa eginez, katalanezko edo galegozko mintzaldi huts bat konprenitzen saiatzen ahal da. Orduan, defendatzen duguna praktikara eramaten dugu, bai ala bai?

Barnilsen izpirituarekin jarraituz, niretzat, guretik abiatzea da xedea eta horren defendatzea. Horretan sinesten dugu ala ez? Gure baitan sinesten baldin badugu bide onetik goaz, inguru-mingururik gabe, goazen zuzenki, alderantziz, bide harritsutik goaz sirenen kantuek gure buruak engainatzen uzten baldin baditugu.

Berri ona da Galeusca topaketan ber antolatzea, baina definitu beharko liteke zehazki zein rol behar duen gaur bezalako testu-inguru konplexu eta nahasi batean. 2014tik hona gauza asko pasatu dira eta atzera egin dugu asko. Katalunian larrialdi linguistiko egoera batean bizi gara, pasatzen den egun bakoitzak irudipen dramatikoago bat

dakarrela. Begira dezagun, beraz, zein diren erabiltzen edo asmatzen ahal ditugun tresnak egiazko aldaketa baten eragiteko.

## ERREZITALDIA

*Sebastià Alzamora*

*Castillo Suárez*

*Marga do Val*

*Sebastià Alzamora*

*Jon Elordi katalanetik itzulia*

POEMARAKO PRESTATUZ

Zure gurasoen etxaldeko eskortan  
dagoen latsagian garbitu nuen aurpegia:  
belar bustiak eta goroldioa nonahi.  
Biok nahiago izango genukeen aurrean  
ibai bat eduki, indar jariotsu bat,  
menderaezina, zeinek saihestuko baitzizkigun  
adjektiboak eta, bereziki, izan ginena  
izateari uko egiteko aitzakia ezdeusak.

Identitatea makarrez betetzeko  
joera duen kontu bat da.



## IRAKURLE

Literaturaz okiturik,  
 trebeska jarri zaizu literatura.  
 Susmo duzu Benn gainantzezten ari dela,  
 Tolstoik ospe hutsala baino ez duela lortu  
 nahi, barrokoek eta erromantikoek arrakasta  
 handirik gabe behatzen diotela beren buruari,  
 eta Melvillez eta Hawthornez gero,  
 Ameriketara aipatzeko duin den ezer  
 ez dela idatzi. Espainiako letrek sarkasmoren  
 bat baino ez dutela merezi uste duzu,  
 eta letra katalanez ez duzu  
 tutik ere jakin nahi

Zaren bezain ona izanda,  
 harritu egiten al zara inork ez zaituelako irakurri nahi?

## USAPALA

Haurrak ginelarik, Rafel lehengusuak  
 usapal bat eramaten zuen sorbalda gainean.  
 Gora eta behera ibiltzen zen, ene lehengusua,  
 usapala ileldian zorriketan zebilkiola,  
 eta, aitor dut, guztiok genion inbidia.  
 Grisa zen eta begi bizikoa, lepoa liraina,  
 luma beltzezko iduneko mehe bat zuena.  
 Txoriak lagun egiten zigun gure jostetan  
 eta txoria bera ere jostailu zoragarria zen.  
 Paper-denda geldo batean ebatsi ohi genituen  
 plastikozko globoz eta esne-botilen lepoz  
 eginiko jaurtigailuak erabiliz, elkarri  
 hartxintxarrak botatzen aritzen ginen.  
 Baratzeetara jauzi egiten genuen  
 mingrana-, piku- eta mizpira-lapurretan,  
 sasoiaren arabera, eta bizikletak  
 espazio-ontzi bihurtzen genituen.

Eta hark, usapalak,  
 lasai begiratzen zigun eta, aldika,  
 kantutxo leun batez urrumatzen gintuen.  
 Atsegin genuen hegan hasi ondoren  
 Rafel lehengusuaren sorbaldara itzultzen  
 zenean, zein irribarre errazeko mutiko  
 ilehori bat baitzen.

Oroitzapenak dira,  
 orain, guztiaren erdibidean garelarik eta  
 usapalak nora egin zuen hegan ez dakigularik.

## HIRI INGURUKO ITSASALDEA

Hegaldaka zebilen nire bikotekidearen burua  
Alemaniako errausketa-labeen zeruan;  
maitea, mundua gure aurrean hondatzen ari da  
eta balkoi honetatik itsas zerrenda lau  
eta oretsu bat baino ez dugu ikusten.

Gureak ditugu koito solemnea,  
elkartu ez izana hobe zuketen maitaleen  
besarkada izugarri eta aseezina,

eztei-soineko mingotsak, europar lizunen  
ezkontza-eraztun handiusteak.

Geldika-geldika belzten ari gara.  
Gure heriotza mapetan idatzita al zegoen?  
Onar ezazu gelditzen zaigun itsasoa, eta itxi begiak.

## ITSASALDEA BARE

Farozainak, umetokitik akiturik irten ondoren,  
dorrea piztu, senadia argitu eta  
itsasargiaren burutzarra birarazten du.

Farozainak, jatorrizko lokaztian, gatzunez eta  
itsas belar zaharminduz igurzten du bere burua,  
eta abegi txeratsua degio azaroko euriari.

Farozainak eta haren farozaintsak  
laranjak jan, haziak barreiatu eta ilunak  
urratzen dituzten argiak igortzen dituzte.

Eta bart beste planeta bat aurkitu dute.

MARGUERITE CHOPIN,  
COURTEMPIERREKO BANPIROA  
C. Th. Dreyer-en *Vampyr* ikusi ondoren

Ilunetan barrena, gaueko txakurrek  
hozkaturiko eskeletoak negar dagien lekuan  
Bartomeu Rosselló-Pòrcel, *Ronda amb fantasmes*.

Ziriak bihotzean odol-korroskada bat dagi  
Eskuak burdin hesiari loturik  
Itzalak erdibitu egiten dira  
Gizonak hilotza desestaltzen du  
eta bera dela ohartzen da  
Zerraldoaren barruan  
Pozoi-flasko bat  
Gurpilak biraka engranajea biraka  
hezur ehotuen irinak medikua ehorzten du  
txalupak hilen ibaia zeharkatzean

## ESTANTZIAK

## Lehenengoa

Izan nintzen haurra gogoan dut,  
ala oroitze uste baino ez ote da?  
kordoi batek lotzen ditu ume hura  
eta idazten ari den gizon hau,  
zilbor batek, hodei-itsaso batek,  
sartu nahi izan ez zuen pilotak.  
Nola banatzen den ikusita,  
ezdeuskeria da boterea:  
Gironako apezpiku bat da  
zozabar baten aurrean paratu  
eta txoritxo hauskorrek zeharo  
dizkio harrokeriak apaldu:  
saldo hegaldariaren marrazkien  
ertzean hain barregarri, mitra.  
Jainkotasuna ez da bertikala,  
ez dator bat hierarkiarekin.

## Bigarrena

Gaztea harroa da zeren, pozez,  
aurrekoek baino ezagutza  
gehiago dituela ikusten baitu.  
Baditu oraino denbora eta akats  
ez dakienaren zama itzelaz  
ohartzeko, gauzak nola doazen  
ulertzen saiatzeko eta, doi bat,  
inozo-urteak, berdintzeko.

.../...

## Hirugarrena

Karrika hutsetan gizakiak  
 aurkitzearen poza, astoarena  
 bezalakoa astoak aurkitzean.  
 Taldekoi izatearen sumina,  
 beren eran zaunka eginarazi  
 nahi dioten txakurren hurko.  
 Baina deus balio al du haren zaunkak?

## Errepika

Gida nazazue heriotzara  
 Neu naiz oinetatik erretzen  
 Neu naiz egur-meta gainean  
 Neu naiz sutzarraren barnean  
 Zozabar-saldoa dakusat  
 neure antzera hegaldaka  
 ugar barnean jarioan

nire Jesus jaungoikoaren  
 begiradaren babespean  
 zuen guztiongandik aske

## BI AHOTSETARAKO KANTA

Edith Sitwell-en *Song for two voices*-en oinarriturik

«Oi Dioniso arbolakoa – zu bizarduna, zu heldua  
 Nire adatsen eta besoen artean katramilatua  
 Mahats-aihenak platano-enborrari itsastean  
 Haizea adar artean bezala etorri zinen».

«Ene bihotzaren lurrerantz, oi urrezko emakume,  
 artoaren jainkosa».

«Oi, haize, itzul zaitez ene adarretara».

«Oi lurraren iluntasun – Oi heldutasun».

*Castillo Suárez*

ELUR MALUTA

Badira elur maluten gisakoak diren pertsonak.  
Ederrak, hotzak, gu ukitutakoan desagertzen direnak.

*Irautera*. Elkar, 2019

## ESPORAK

Aitortzen ez ditudan gauza guztiakin  
 egiten dut lo.  
 Iratze-sailak zeharkatu nahiko nituzke  
 ametsetan,  
 eta ni ere loratuko ez naizela esan  
 nire baitako gizonei.  
 Esporak utzi izaren artean  
 hatzak  
 nire sexuan sartzen dituzten bitartean.  
 Behar ditudala esan  
 lingua franca batean,  
 denek ulertzeko moduan.  
 Bezperako arropa jantzi.

Nagoen tokiaren  
 eta egon nahiko nukeenaren arteko distantzia da  
 bakardadea.

*Irautera. Elkar, 2019*

## ITZULMINA

Orkatza naiz  
 goizaldean soroa gurutzatzen.  
 Maite nauzula esatea  
 nahikoa litzateke trostan ez jarraitzeko,  
 baina izotz beltza da zure isiltasuna.  
 Ez naiz laketzen bakardadera.  
 Min bat kontaidazu  
 eta zure logelara agertuko naiz estal nazazun.  
 Gau bat emadazu  
 eta erakutsiko dizut maitetasuna ez dela hautazkoa.  
 Lursail bat salduidazu  
 eta frogatuko diogu elkarri gure bihotzak ez direla  
 inorenak.  
 Hesi bat egidazu  
 eta neurria hartuko diogu gure etsiari.  
 Orkatza naiz txarrantxak zauriturik.  
 Zure ferekek esanda dakit banaizena.

*Irautera. Elkar, 2019*

## PROZESIONARIA HABIA BAT

Maite zaitut  
 ez duzulako nire iragana ezagutzen,  
 ez duzulako nire orainaz jakin nahi  
 eta ez zarelako nire etorkizunean egongo.  
 Izan ere, zure adinarekin  
 inork ez du bihotza osorik gordetzen,  
 eta nirearekin badakit  
 sexuak beti eramaten gaituela  
 okerreko tokietara.  
 Pinu beltzak dituzu begien hondoan;  
 nik prozesionaria habia bat umetokian.

*Irautera.* Elkar, 2019

## EUKALIPTOAK

Eukaliptoak ikusten ditudanean  
 bide bazterrean  
 badakit zure etxera eramango nauzula.  
 Ohearen erdian hartuko duzula lo,  
 eta, goizean, egurra egitean,  
 aizkorakada bakoitzean,  
 nire gainean egongo zarela,  
 mugitu gabe,  
 ihes egin ez dezadan,  
 eta hildako zakur bat  
 agertu ez dadin autobide bazterrean.

*Irautera.* Elkar, 2019

## ARROSAK

Nik badakit arrosez,  
 baina gehiago dakit neguko loreez.  
 Nik badakit zauriez,  
 baina gehiago dakit kolperik gabeko odol-galtzeez.  
 Zu gabe egotea  
 zu izan zintezkeenekin egotea dela,  
 hori ere badakit.  
 Maitetasuna hitz itsaso bulartua dela,  
 negu minean ez dela belarra hazten,  
 leihoetako ganduan ez dakidala zer idatzi.  
 Baina besteek ez naute ikusten horrela.  
 Ez dakite nire etxea ez dela nirea:  
 nire iraganeko gizonen eraman zutela puskaka.

*Alaska. Elkar, 2023*

## ESTALPEA

Hemen bizi naiz  
 baina hangoa dut zerua.  
 Maite dudana ez naiz jabetzen erabat,  
 eta areago maitatzen dut horregatik.  
 Igerilekuko kaleetatik,  
 gameto-korapilo bat garraiatzen dut isilik  
 mutu dagoenak beti eskatzen duelako isiltasuna.  
 Gauza soilei ez diet erreparatzen min ematen didaten arte,  
 iraungitzen diren arte.  
 Gorputza da naizena.  
 Sabelaldea da izanen ez naizena.  
 Ezin izanen zara iragazi eta ezin izanen nauzu babestu.  
 Beste bizimodu batzuk elikatzeko etorri naiz  
 horien parte izan gabe.  
 Nirekin lo egiten duzu.  
 Nire gorputzean egonaldia egin nahiko zenuke,  
 nire baitara sartzen uzten ez dizudan arren.  
 Badakizu ez dudala eginen agintzen didazuna.  
 Ez naiz inoiz izanen zure ondorengoen estalpea.

*Alaska. Elkar, 2023*



## BESTE BAT IZAN

Laharrak hartuak nituen birikak zu ezagutu zintudanerako.  
 Mareak ezkutatutako hondartza nintzen.  
 Ezin nituen arropak erantzi zure aurrean,  
 nire baitako leizea aurkituko zenuen beldurrez.  
 Beti nahi izan dut beste bat izan,  
 urtero azala berritu eta higatutako puskak lurrera erortzen utzi.  
 Beti nahi izan dut animalia bezatua izan,  
 lerro zuzenak jarraitu,  
 eremu babestu batean laketu.  
 Otzanagoa izan naizena baino.  
 Beti nahi izan dut  
 niri helduta bizi nahi izan dutenei  
 zabor poltsa handitan puskak bueltatu,  
 elkarren ezezagun bihurtzeraino.  
 Behingoz negar egiteak beste bat egingo nauela diozu;  
 aztarnarik ez duela uzten,  
 ez bada arrainen azal ezkatadunean.  
 Asko izatearen bakardadea ez dela nirea bakarrik.

*Alaska.* Elkar, 2023

## HITZORDUAK

Ez dut medikuen hitzorduetara joan nahi  
 ez diedalako esan nahi begi berdeak ditudala,  
 pagoak ezkututzen ditudalako hezetasun betean.  
 Nireak ez diren oheak lanbroz betetzen ditudala  
 eta loa kentzen diedala nire laiotzean geratzen direnei.  
 Argi gutxirekin hazten ari naizela,  
 galdutako gauzen erbestean.  
 Borroka etengabea ari naizela poemekin  
 nire itxurak egiten dituztelako,  
 nire ordeaz joaten direlako hitzorduetara,  
 medikuenetara ere bai.

*Alaska.* Elkar, 2023

## KALA ZURI BAT

Kala zuri bat eskutan,  
konturatu naiz  
gero eta gauza gehiago maite ditudala izenik gabekoak,  
isiltasunak hartzen dizkidala aldamenak,  
hutsa dudala idazmahaia,  
mina jasateak ez didala aparteko lanik ematen.  
Nire barruko hezegunea hor dela ere ahaztu egiten zait,  
etsaiak pilatzen zaizkidala agendan,  
nire etxean galdu nuela gerra handi bat  
eta lubakien aztarnak bertan geratzen direla.  
Kala zuri bat eskutan,  
konturatu naiz  
maitasun berriez ez duela inork idazten,  
eta bai, ordea, galdutakoez.  
Kala zuri bat eskutan,  
konturatu naiz  
lore bakarrekoa naizela ni ere;  
toxikoa, gordinik janez gero.

*Alaska. Elkar, 2023*

*Marga do Val*

*Itxaro Borda galegotik itzulia*

## AUTOPOETIKA

Gorputza ez daukat antzerkirako  
Makilatzen geratzeko  
Ez dut pertsonaiak babesten dituen jantzirik ematen  
Nire keinuen konfiantza ezak beldurtzen nau:  
Hitzak laguntzen dituzten eskuak altxatu ala ez  
Hanken zehaztasuna lurrean erakutsi ala ez  
Oinak hutsean  
Denborarik gabeko goizeko orrazkera agudoa.

Gorputza ez daukat antzerkirako  
Eta aktorea naiz eta hemen nago tauladan  
Eta poemak galtzen dituen poeta naiz  
Poemetan galtzen dena.  
Eta isil naiteke  
Isiltasunaren bertsoak erakusteko.

Hemen dago horietatik bat.

Itotzen den bizitza baten isiltasunak  
Zuri ere bai  
Eta zuri  
Eta zuei, emakume  
Eta zuei.  
Kontua da zeharkatzen gaituzten isiltasunak  
Entzutea.

.../...

Kontua da hitzei bihurrikatze baten ematea  
 Ekuazio matematiko honetan  
 Harridura literarioaren  
 Eta erraien artean.  
 Aljebra hutsa.  
 Nola haragitu incognita  
 Poemako balio ezezagunarekiko letra hau?  
 Nola ez iltzatu alkoban hitzak eta hitzak  
 Isiltasuna isiltasunaren ondotik?  
 Atorra ongi lotzen dien erranaldi irmoak haragitzeko  
 Paparrean zintzilik eramateko:  
 Ezer ez gara ibairik gabe.  
 Guztia ez da haizea goseak irentsi ez gaitzan.  
 Ahaidetzen gaituen atorra  
 Tribua gisa zehazten gaituena  
 Asmorik hoberenekin.  
 Gureak dira mendiak.  
 Suak itzaltzen dira neguan.  
 Asmorik hoberenekin.  
 Bat ukituz gero guztiak ukitzen gaitu.  
 Asmorik hoberenekin.  
 Bakarrik asmorik hoberenekin.

Kontua da poema haragitzea  
 Dizidentzia  
 Errebolta  
 Erraiak  
 Harridura literarioaren artean.

Gorputza ez daukat antzerkirako gaur  
 Hala eta guztiz ere  
 Bere poemetan galdu poeta ordezkatzeko  
 Duen aktorea izan naiteke  
 Tribuako emakumea  
 Atorrik gabe.

## IDAZTEN GAITUEN HITZ BAT

Min egiten duten hitzak badira.  
 Haiekin sortzen gara handitzen.  
 Ezkutuko zauriak  
 barnetik atzaparkatzen gaituzten eskuak.

Hitzak badira poema batean idazteko zailak.  
 Plazetan oihukaten ditugun hitzak, karrikan daudenak,  
 sukaldean sartzen direnak eta azkena,  
 esnatzen gaituen lehena,  
 itzulinguratu beharko genukeen pentsamendua  
 ohe eroso eta beroan.

Paperetik exiliatuak.  
 Bertso bakoitza lerro bat da eta oraino beste bat.  
 Hilotz bat eta beste bat eta oraino beste bat.  
 Bukaerarik gabeko betiereko poema bat,  
 dolore bat eta beste bat eta oraino beste bat amaierarik gabe.  
 Bertso bakoitza nortasun hila den lurrean.  
 Loreak haizeak lurrari egin marrazkiak direnean  
 hauts eta hauts gehiago,  
 lumadun metrailatua.  
 Aspalditik animaliarik ez dagoen lekuetan hara  
 ihes egin zuten hil ziren hil egin zituzten.  
 Estomagoa nahasten duten hitz horiek  
 aho-sabaian urkatzen direnak  
 argitzen duenean ere argia ikusten ez dutenak.  
 Itzalitako eki-arrario arinak.

Haur hitzak dira  
 Batzuek hortzik gabe amaitzen dute.  
 Besteek garaiz ikasten dute existentziaren zentzua .../...

hain urrundik zapaltzen gaituena  
 munduaren lotsaz hitz egiten diguna  
 behin eta berriro.  
 Denboraren aurka korrika egiten dute  
 Auschwitzetik lekora  
 Napalmetik lekora  
 eta erretzen dute.  
 Eta erredura berriz erretzen dute  
 errausteko  
 eta erre egiten dute.

Bizirik egotea ulertzen ez duten hitz zahar jakintsuak dira  
 hilezkortasunaren izen guzien kontuak eramaten dituztenak  
 Sinforosak<sup>1</sup>.  
 Hirurogei urte hitzaren baitan bizi garela  
 nahi dugula  
 paperean ito gaitzan  
 hainbeste hilotz ilaretan  
 isiltasunaren antonimorik handiengan.

#### PALESTINA

Barrutik erretzen gaitu.  
 1964 urte bete hitzaren baitan sortzeko.  
 Nire belaunaldiko kideak,  
 hildakoak erailak  
 Palestinan.  
 Munduaren lotsaren kontra.  
 Palestina.

<sup>1</sup> Poetak, hemen Castelaoren Cousas ipuin bildumako «Andere Sinforosari» egiten dio erreferentzia, adineko andere hori abegikorra zelako hondatzen zihoazen ontziekin eta hauen memoria zaintzen zuelako

#### HIZKUNTZA POZOITSUA

Zelofan-paperaren gainetik  
 film trinkoak oprimitzen zuen opari  
 bihurtzea zelarik gure heziketa.  
 Sugea gorputzean kiribiltzen zen bezala.  
 Ito egiten zuen.  
 Erasotzen zuen oina lehenik eta orpoa ere ez zen salbatzen.  
 Behatzak estutzen ziren  
 eta ezer ez genuen sentitzen izate intsentsibleok  
 eta horrela ere hazten ginen.  
 Gorputza aurtikitzen genuen lurrera oinik pausatu gabe,  
 oinetakorik gabe eta oinak lurrean pausatu gabe.  
 Sasi eta otaka zauriekin  
 ziztak eskuetan sartuta  
 dolorearen kontzientziarik gabe.  
 Lokatza desagertzen zen  
 eta mila ibaietako harri borobilak  
 eta bidetxoetako bitxotxoak  
 beraien ibilera astiroarekin  
 eta zuhaitzak eta hauen frutuak  
 beraien kolore eta zaporeekin  
 eta txoriak eta beraien habiak  
 Beraien elkartzeko moduarekin  
 eta arrainak eta beraien formak  
 eta insektu hegalariak  
 eta landare igolariak  
 eta lurra itsutzen duen sasia.

Zelofan-paperaren gainetik  
 film trinkoak oprimitzen zuen opari  
 bihurtzea zelarik gure heziketa.  
 Eskuzabal hedatzen zuen bere pozoia oinetatik,

.../...

aldaketan zirkuluak marrazten zituen.  
 Nahitara gelditzen zen zilborra zaintzeko,  
 lehengo loturaren orbaina.  
 Amatasuna suntsitzea zen helburua  
 eta gorputza altxatzea,  
 besoarte bakoitzean atzera egitea,  
 lepoa itotzea  
 eta banan bana buruaren zazpi zuloak.  
 Gure erraiak idortzeko.  
 Hizkuntza pozoitsua.

Zorabiatutako haur gorputzak  
 zelofanoan bilduak  
 aurrerapenaren zekenkeriatik txertatuak  
 bariatatea aldatzeko  
 eta jatorria bereganatzeko.  
 Zuhaitz urkatzaileak  
 erroak airean  
 lurrari begira ibiltzen direnak  
 argiaren bila,  
 lapurtzen gaituztenak  
 odola zurruputzen diguten artean.  
 Anfitrioa hiltzen duen apopiloa bezala.  
 Bideetako hizketa isil arazteko.  
 Hizkuntza pozoitsua.

Zelofan-paperaren gainetik  
 film trinkoak oprimitzen zuen opari  
 bihurtzea zelarik gure heziketa.  
 Borroka amaiezina da desikastea,  
 gorputza berreskuratzea, bai eta ahotsa.  
 Eskuak askatu behar izan genituen  
 eta eskuekin oinak

.../...

eta oinekin lurra zapaldu,  
 lokatzera erori.  
 Dolorea odolatan sentitu behar izan genuen  
 sasietako ziztak,  
 otakenak,  
 eta odolarekin lepoa askatu  
 eta buruko zazpi zuloak.  
 Jatorria eta bariatatea salbatu  
 behar izan genuen  
 eta ahotsa berreskuratu  
 eta bideetako hizketetan sartu  
 eta harri borobilak abesten dabiltzan  
 mila ibaietako kantuak askatu  
 eta izen guziak karrakatu  
 bidetxoetako bitxotxoena  
 zuhaitzen eta hauen frutuenak  
 txorien eta arrainenak  
 insektu hegalarrienak  
 landare igolarrienak  
 lurra itsutzen duen sasiarena.

Borroka amaigabea da desikastea.  
 Gorputza eta ahotsa askatzea  
 zelofan-paperik gabe  
 paparririk gabe  
 eta larrua habitatzea  
 oinak lurrean pausatzea.  
 Hizkuntza gurea.

## SARABANDA LUISARENTZAT

DENBORAK ihes egin du Johann Sebastian Bachen musika batera  
Nostalgiaz bordatu etorkizuneko nekera iritsi da.  
Ez da aski liburuekin poemekin geografia barreiatuekin  
Hizkuntza partekatuekin hitz atitxatuekin.

Eman behar zaio ongi etorria paper polit batez troxatu opari  
baten antzera deitu gabe sartzen den iraganari  
Beldurra  
Gure bizitzak zatikatzeko guk bitan partekatuko  
Dugulako bizitza

Mapek  
Isosglosak marrazten dituzte gorputz malgutuan

Urdailean hondoratutako denboraren arratsaldea  
Paparrean lotzen den egiazko dolorea eta bizitutakoa  
Johann Sebastian Bach-en musika bezala  
Leipzigeko Thomaskirchen  
Luisa Vilalta Argitsuaren biolina  
Beti gonbidatzen duena  
Beldurra uxatzen didana  
Malko artean

Horregatik pobre hil zen  
Kantatu erditu idatzi maitatu zuen hirian  
Bach izan zen Anna Magdalena Wilckenen  
Sarabanda entzuten da bakarrik  
Eta zu Luisa, adiskide mina.  
Bakarrik zu.

## DECLARACIÓN DE PALMA

Reunidas/os en Palma o día 29 de maio de 2024,  
nós, escritores e escritoras en lingua galega, vasca e catalá,

DECLARAMOS:

1. Que estamos aquí pola herdanza do espazo de intercambio cultural GALEUSCA, con precedentes históricos que datan dos tempos da Segunda República e que ten como fitos fundacionais os encontros anuais de escritores/as celebrados desde o ano 1984, a raíz do Encontro de Poblet, e a constitución oficial da Federación GALEUSCA, no ano 2008. Somos o testemuño vivo do legado histórico, cultural e lingüístico que nos precedeu, e temos a responsabilidade e a vontade de proxectalo no presente e no futuro máis inmediato axeitándoo aos tempos e necesidades.
